

DAGOKIONARI:

GIZARTEA

Azkeneko denboratan "Aceros Corrugados"ko (garai bate-tako Orbegozo) tximinitik ke marroi itsusi bat azaltzen da. Jaunak, jarri duzuten garbigailua ez dago noski apaingarri-rako! Eskerrak aurretik!



"Orbegozo"ko tximinia ga-rai hoberene-tan bezala. Aurtengo urriaren hamabian ateratako fotografia.

-----ooooo000oooo-----

Kirol orrian esaten dugun bezala kirol instalakuntza egoki baten zai gaude. Itxoiten jarraituko dugu baina ez denbora luzez.

-----ooooo000oooo-----

Aurrekoarekin doa. Instalakuntza honen eraikitzearen hasieran Takili Takulu fanfarea ensaioak egiteko lekuri-ke geratuko da. Dakizuten bezala lehen Achako pabeloietan ensaiatzen zuten. Norbaitek esku bat botatzea espero dugu, orain arte laguntzak gutxi izan ditu eta Lezoko fanfareak. Takili Takuluk leku apropos bat aurki dezan otoi egiten dugu.

-----ooooo000oooo-----

Bat berdea. Jaunak, Lezon ditugunak ez dira lorategiak hondartegiak baizik, gutxi direnez gainera gaizki arduratuak eta gutxi errespetatuak daude. Ikus dezagun ia denok batera

Lezo berde eta garbiago bat lortzen saiatzen garen.

-----ooooo00ooooo-----

Altamirako parkea. Lotsagarria. Barrabas batzuk farolak txikitzen dedikatu dira. Bada mukitzu horiekin bukatzeko garaia eta barrabasadengatik ordaintzea.



-----ooooo00ooooo-----

Pintadak. Hau beste lotsagarrikeri bat da. Nahiko zikina dago gure herria oraindik gehiago zikintzeko. Berdin zaigu pintadak norenak edo nolakoak diren. Nazka bat da! Bakoitzaren ideiak aditzera emateko "papera" izeneko sustantzia bat saltzen dute estankoan, eta zenbait egun-kari edo aldizkarietan ere ideia horiek azaldu daitezke. Beraz herriko hormak ez zikindu gehiago... Mesedez.

-----ooooo00ooooo-----

